

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5174

*EBAZPENA, 2019ko urriaren 28koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko 2019ko azaroan iraungi diren lankidetzeta-hitzarmenen zerrenda.*

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua babesean (aldi baterako indarrean egon zena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraikiz), Eusko Jaurlaritzak lankidetzeta-hitzarmenak sinatu zituen ebazpen honen eranskinean azaltzen diren udalekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko.

Hitzarmen horien bidez, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta haren menpeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei zuzentzen dizkioten eskabideak, idazkiak eta jakinarazpenak udalen erregistroetan aurkeztu ahal izango dituzte, eraginkortasun osoz.

Hitzarmenen seigarren klausulak ezartzen du, hitzarmenen indarraldia ezartzean, lau urtez egongo dela indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita, eta, Administrazio sinatzaileetako batek, espresuki, kontrakorik ez badio, hitzarmena, besterik gabe, beste lau urtetarako luzatuko dela.

Hitzarmenetan aurreikusitako epea amaitu denez, iraungi egin dira Eusko Jaurlaritzaren eta eranskinean aipatzen diren udalen artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenak.

Era berean, aipatutako klausulak aurreikusten du hitzarmen horien iraungipena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Udalaren iragarki taulan argitaratuko dela.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta, batetik, hitzarmenen seigarren klausula, eta bestetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10. artikulua, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea 2019ko azaroan iraungiko direla ebazpen honen eranskinean aipaturiko hitzarmenak, aurreikusitako epea amaitu delako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko sinatutako hitzarmenen seigarren klausularekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 28a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,  
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

2019ko azaroaren 11, astelehena

## ERANSKINA

Udalerria	Hitzarmenaren epemuga
Leintz-Gatzaga	2019-11-03
Karrantza Harana	2019-11-03
Zaldibar	2019-11-03
Ezkio-Itsaso	2019-11-17